

‘Eibar-Israel’ peñaren presentziarengatik debekatu zuen Ertzaintzak Palestinako bandera Ipuruan

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA :: 03/01/2024

Peña honek kluba zoriondu zuen urrian, Palestinako ikurra debekatzeko erabakiagatik.

Urriaren 15ean Palestinako ikurra zeraman zaletua estadiotik kanporatu eta isunarekin mehatxatu zuen Ertzaintzak, klubaren babesarekin. Erkoreka adierazi duenez “Kasu zehatz horretan egokitzen jo zen bandera kentzea, Eibarko Kirol Elkarteak bere zaleen erregistro-liburuaren barruan “Peña Eibar Israel” izeneko kirol-lagunartea baitauka; eta beraz, bandera hori erakustea eragin zezakeen futbol-partidan zehar segurtasun arazoak gertatzea”.

Urrian bertsioa beste bat izan zen

Erantzunaren egokitasun edo egokitasun ezaz haratago, urrian emandako azalpenak beste batzuk izan ziren. Klubak ziurtatu zuen Ligak barne-zirkular bat bidali ziela klubei ikurrak debekatu zitzaizkien. Segurtasun Sailetik azaldu zuten Eibarko segurtasun zerbitzuek eskatu zutela Ertzaintza bertaratzea, eta Kirolaren Legea aintzat hartuta zigor-akta bat ireki ziola kanporatu zuen zaleari.

Sionisten esker ona

Jon Torner kazetariak jaso zuen gisan, 2015ean sortutako Eibar-Israel peñak esker ona adierazi zion Eibar futbol klubari partida hartan hartutako jarreragatik: ““Zutaz harro gaude, Eibar. Errenkadan lortutako hogeita garaipenak baino balio handiagoa du honek”, idatzi zuen peñak sare sozialetan.

Albiste osoa: ‘Eibar-Israel’ peña dagoelako debekatu zuen Ertzaintzak Palestinako bandera Ipuruan, Erkorekak azaldu duenez (argia.eus)

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/eibar-israel-penaren-presentziarengatik-debekatu